

BIZKAIKO MUSEOA ETA BIBLIOTEKA PUBLIKOAREN EGITASMOA 1840.ean: PORROTA EDO JOKABIDE PARADIGMATIKOAREN HASIERAN

Joseba Agirreazkuenaga Zigorruga.
*Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Eusko
Ikaskuntzan Historia-Geografia saileko aintzindaria.*

Gure herrian Museo eta biblioteken sorkuntzak ez dira hain zaharrak, besteak beste handikiak eta burgesak oso arduraturik eta lanpeturik ibili bait ziren produkzio egitura zuzen zuzenetan zein eta gudetan, nabigazionean eta abar. XVIII mendean aldiz irabazpi-deak errezago lortzen bide zutelako edo, eta jakintza etorkizunaren giltza zela igarri zutelako, elkarte distiratsua sortu zen Real Sociedad Bascongada de Amigos del País izenekoa, kultur giroa goratuz, biblioteken garrantzia eta kolekzionismoaren zirrara hedatuz; egintzarik garrantzitsuena Bergarako ikastegia. Giro honetan, biblioteka berriak antolatu ziren, jakin mina biztu eta oreka berean lantzen saiatu ziren zibilizazio materialaren aurrerakunde eta zibilizazio animikoaren kezka eta premiak.

XIX mendean, zibilizazio materiala erabateko aldakuntza sakona izan zuen bitartean, animikoak aldiz, gizaki guztion barruko muinetan daramagunak ez zuen «baliorik» hartzen, betegarritzat hartuaz, grina txarrak baretzeko baino ez zelarik. Kultur kezka agiri da bai baina arduragabekoa, hori gabe ere bizi ahal zela eta, *primum vivere* eta gero gerokoak; pentsatu barik, ostera, kultur produkzioa bizitzaren gune dela, batak beste gabe eta alderantziz, desorekatu egiten gaituela.

XIX mendearen lehen erdian arazo larriak bizi izan ziren, baina azkenean ere produkzio indarrek sekula inoz uste bako aurrerapena eta garapena ezagutu zuten, maila material batetan soil soilik tamalez, beste hesparu batzuk, kultur gintzarena erabat bazterturik gelditu zela. Bilbon Kontsulatuaren eraginez eta bertako udalaren babespean, merkatal eta nautika eskoletan zein Santiagoko Kolegioan, biltzen ziren ikaskuntz zentro garrantzitsuenak. Euskarazko kultur gintzan ere aipagarria dugu Paulo Ullibarri, hainbat aha-lerin eta nekeren testigu, liburu zalea eta beren bidez dakigu Valdespinako markesak, I. Orbe Eliok, Ermuan biblioteca dotorea zeukala. Zaldun nobleak bai izan zuten liburu zaletasuna baina maila pribatura mugaturik (1).

(1) J. P. ULLIBARRI: Gutun *Liburua* Bilbon 1973. Bilbon zegoen irakaskuntza ikus AGIRREAZKUENAGA J.: Bizkaiko lanbide irakaskuntza XIX menderdian in *Cuadernos de Sección de Historia y Geografía*. Donostia 1986.

1840.eko maiatzaren 27.ko erabakia

Aipatu egunean Diputazioa bildu eta biblioteka publikoa eta Museo bat sortzea erabaki zuen, desagertu berriak ziren konbentuetako liburuez eta pinturez bibliotekaren eta Museoaren oinarritzko edukiak ornituko zirelakoan (2). Baina egoitza aurkitu behar zen. Hospizio delakoa (karmendar erlijiosoen jabetza izandakoa eta 1840.an Estaduko ondasun bihurturik) propasatu zuten toki egokitzat. Berehala eskakizuna erreginari luzatu zitzaion, eskarian gehiago argitu eta sakontzen zutela proiektuaren nundik norakoa eta zergatiak: Gazteriak aterabide berriak behar zituen, jakinduriak eta ikasteko zaletasunak etorkizunaren atea zabaltzen bait zizkioten eta gainera horretan diharduela grina txarrak, gudarako grinak alegia, baretuko zituen. Egia esan liburu gutxi gelditzen zen konbentuetan, jendeak harrapatu egin zituelako, hala ere egon zeuden apurren bidez, liburu zein pintura, mineralen eta txanpon kolekzioez osoturik, Bibliotekari eta Museoari hasiera emateko aski zen. Museoa gazteen ikaskuntza giroa betetzeko sortzen zen, hezkuntza sarearen baitan kokatzen zen, bestalde pertsona helduen lasaitasunerako ere baliotzen zuela.

Ez dakigu zehazki zertan bukatu zen eskakizuna baina badirudi ezezkoa edo erantzun eza jaso zuela.

1842.eko Urtarrilaren 21.ean liberal progresistek behin behineko Diputazio gobernuaren ardura hartu hala F. Lecea de Victoriari, Zabalbide kalean, etxebizitzatza, baratza eta teilape bat alogatu zioten, urtekoa 3.300 erreal zela. Bertan Pinturen Museoa jarri zuten, Pablo Bausac-en zuzendaritzapean eta honi loturik marrazki eta litografi Eskolak ere (3).

(2) Bizkaiko Diputazioko artxiboa Bilbon *Acuerdos de la Diputación y Juntas Generales*, 87 tomoa. Korregidore politikoa Gregorio Lezama Legizamon, Diputaduak, Victoria de Lecea eta M. Murga, sindikoa Juan Bautista Torrezuri zirela hartu zen erabakia.

(3) Bizkaiko Jaurerriko Artxibategi Nagusia. Gernikan. *Archivos y Museos*. 15 erregistroa, 3 legajoa.

Diputazioa politikoki eskuz aldatu zenean, proiektu hauek berriz txokoratu ziren. Etxejabeak, etxearen jabetasuna eskatu zuen eta 1843.ean pintura eta gaiznontzeko ondarearen toki aldaketa burutu zen, 1845.ean Correo eta Jardines kaleko gela bitan bildurik aurkitzen zelarik. Hala ere, 1844.ean behintzat Pablo Bausac-ek margoen ondarea zaindu eta konpondu egin zuen, koadro barriztatuen artean, Mendieta-
ren, Errege katolikoaren, Foruen zinaldia, aipatzen zelarik (4).

Txarka marka, batez besteko urtean 3.460 erreal xahutzen zuen Diputazioak Bizkaiko Museoaren arazoan, 0,30 % urteko gastu trinkoetan eta 0,14 % urte osoko gastu orenen baitan (5).

Baina 1848.ean Bizkaiko finantz publikoen arloa, kinka larrian aurkitzen zen, zorren zuloa gero eta sakonago izateko arriskutan, gerra garaiko zorrak kitatu ezinik ibili ziren, baina gastu arruntak eta ardura publikoak ere gehitzen zihozten estatu modernoaren erantzukizunek eskatzen zuten heinean. Arazo larriaren konponbiderako batzar nagusietan Comisión Económica delakoa izendatu zen, partaideak Bizkaiko jauntxoak eta agintari zirkulu itxiko pertsonai zaldunak zirela (6).

Batzordeko zati batek erreforma sakona proposatu zuen: Administrazioaren erreforma, soldaten beharapena, zorren errekonbertsioa diru paperetan eta abar, gastu korranteak gutxitzeko eta zorrak konjela-tzeko asmoz. Beste talde batek ordea ez zuen hain al-daketa nabarmenik egin nahi eta gutxiago oraindik Diputazioko administrazio langile eta jendearen soldaten beharapena. Akordiorik ezear, hori bai, denak bat etorri ziren, Biblioteka eta Museorako jarririk ze-

goen diru apurra kentzeko (7). Jakina errezena zen, kenketa horrek arazoa inundik inora deus ere ez zuen konpontzen. Baina urrengo urteetako presupuestoetan ez zen gehiago agertuko biblioteka publikoa eta Bizkaiko Museorako aipaturiko partida.

Azken gogoeta

Bost urtetan diru kopuru jakin bat biblioteka publikoa eta Bizkaiko Museoa egiteko egon bazen ere, badiudi ezer gutxi egin zutela, zeren 1848.ean hain erre-denak aho batez diru apurra kentzeko, azpiegitura aldetik ez gainontzekorik egin gabe edukiko zutelako izan zitekeen (8).

Bestalde gudetako zorren eragin txarra, oinarri-zko kultur azpiegituraren kaltetan jarriko zen. Jakina, batzordeak erabaki zuen proiektuaren amaiera baina nolabait aurreko urteetan ezer ere ez egiteak, behar-bada kalte haundiagoa ekarri zuen, azpiegitura eta premia sortu ez zenez gero, nahiz eta proiektuaren interesgarritasunean bat etorri; azken batean bazterketa-
ren erabakia errez hartzeko baldintzak emanak ziren.

Horrela bada bukatu zen eraikitzen zegoen estatu bizkaitar berria indartzeko, jakina kultura eta jakinduriaren arloan, proiektu interesgarria Bizkaia-
ren aberastunerako eta garapenerako eragingarria ezbarik gabe. Gaur egunean konturatzen garenez, aurrerakunde tekniko-materialak ez zuen ezagutu pareko oinarri-zko kultur garapenik ez aberastasunik.

Baina garai bateko ikuspegi labur baten erakusgarri duguna, ez dirudi gaur egunean asko aldatu denik. Adibidez aurtengo urterako Diputazioen gastuetan ikusirik zein arlok jasan duen beharapen nabarmena, kultur arazoetarako beti da tarteko, eta lehen-
ga gehienetan.

Orandik orain epe luzeko mentalitate baten ildoan aurkitzen gara, garapen kulturalaren garrantziaz jabetu gabe, gizakion aberastasunaren giltzarri dela, sinesterrik ez dugula nahi.

(4) Ibidem “Cuenta de los gastos echos para la limpieza de los cuadros del Museo de vizcaya y el importe de su trabajo”. Ondoko hauek aipatzen ditu “Una Magdalena de tamaño medio, limpieza, barniz, tachuelas para estirarlas
Buena Ventura (cuadro grande) limpieza, barniz... Un Cristo del tamaño natural ... La adoración de los Santos Reyes... Retrato de Fernando 7º del tamaño natural... Idem del Cardenal Gardoqui... Una Magdalena y San Agustín... El retrato de Ysabel de Braganza... El Cuadro de la jura de los Fueros de Vizcaya por el Rey Católico limpieza y dar barniz a seis cuadritos lienzo para un Cristo en tabla, tachuelas para el retrato de Godoy, cola para el Cristo y otros remiendos pintura porcelana para cuatro marcos”.
Guztia 594.erreal.

(5) B.J.A.N. Gernikan Comisión económica 1 Erregistroa.

(6) Domingo Eulogio de la Torre, Castor M^a Allende Salazar, José M^a Cortazar, Manuel M^a Aldecoa, José M^a Laranbarri, Serapio Hormaza, Santiago M^a Arguñariz Alzibar, Gil Ugarte, Manuel José Epalza, Pedro M^a Recalde, Nicasio Cobreros, José Pantaleón de Aguirre, José M^a Machín. Pertsonai hauek sinatzen dute batzarde Ekomunikaren txostena. B.J.A.N.: Comisión económica, 1 registroa.

(7) “El Museo de Vizcaya cuesta anualmente 3.460 reales de vellón sin que el público obtenga ningún beneficio. Sería de desear que la Ylma Dputación según lo tiene acordado, trasladase al Instituto las pinturas y los objetos de historia natural, tan pronto como se habilite en aquel nuevo edificio el salón destinado al efecto ahorrándose entonces este gasto” (1848) B.J.A.N. Gernikan. Comisión económica. Erregistroa.

(8) NAVASCUES: *Observaciones a los fueros de Vizcaya*. Bilbao. 1850.160 orrialdean, Biblioteka eta Museoari buruz, hara zer idatzi zuen: “No disfrutaba el público de Bilbao en 1847 de estos establecimientos”.